



PILAR KALTZADA

txikiegia agian

Artikuluak

AURKIBIDEA

Hitzaurrea: Txikiegia?	5
Giltza	6
Atzizkiak	7
Liburuak	8
Gaixorik	9
Notak.....	10
Nahi eta ezin	11
Aniztasuna.....	12
Beratzen	13
Musua	14
Egiak eta haurrak	15
Argi-metxak.....	16
Badaezpada.....	17
Bazterbideak	18
Deseroso	19
Edurne eta Rosa	20
Eskerrik asko	21
Ez alde, ezta kontra ere	22
Geziak.....	23
Gogoratuz	25
Jainko txikia.....	26
Lantegiaren usainez.....	27
Lerro okerrak	29
Neure neurrikoa.....	30
Berandu nabil.....	31
Oharkabe	32
Satorrak.....	33
Sirena-hotsa	34
Zerrendak.....	36

PILAR KALTZADA

txikiegia agian

Artikuluak

*Begietara begiratzeko modu bat,
galderak egiteko modu bat,
eskutik heltzeko modu bat,
amets egiteko modu bat.*

*Ez onena agian,
ez ederrena agian,
zaharregia, txikiegia agian.*

Kirmen Uribe



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Hitzaurrea: Txikiegia?

“Hitzak beharrak sortzen ditu: adierazi beharrak, barruko mamuak askatu beharrak, premiak elkarri aitortu beharrak...” dio Pilar Kaltzadak hemen ditugun artikuluetako batean.

Hitzekin batera, hainbat elementu –beharbada lehenengo begirada azkar batean txikiak diruditenak– aitzakiatzat hartzen ditu donostiarrak artikuluko erakitzeko. Edo, kazetariaren harira etorrita, zenbait gauza begien aurrean jartzen zaizkio eta, horien eraginak bultzatuta, hausnarketa-artikulu hauek garatzen ditu.

Elementu txikiak direla esan dugu, hasiera batean behintzat. Eta teselek mosaikoa osatzen duten bezala, artikuluko hauek Pilar Kaltzadaren ikuspuntua – edo, behintzat, horren zati bat– irudikatzen digute. Beraz, elementuen ustezko txikitasun horri garrantzia onartu behar diogu.

Tesela zirikatzaileen artean, usainak, koloreak, zuhaitzak eta, nola ez, hitzak ditugu. Eta arlo askotara eramaten gaituzte: familia, lana, norberak bere buruarekin dituen elkarrizketak, gure usteak eta sinesmenak, txikiek egiten dizkiguten galderak, beldurra, nahia, memoria historikoa, giza aldaketak...

‘Beldur diet baiezko biribilei, eta baita ihesbiderik uzten ez duten ezezko erabatekoei ere’ dio Kaltzadak beste artikuluko batean. Horregatik ere, teselak erabiltzea, harri puska handien ordeztu, egokia da. Ideia bakoitzaren alde batzuk eskaintzen dizkigu, iritzi monolitikorik ezarri gabe.

Munduari begiratzeko modu txikiegia al da, Kirmen Uribek idatzi, Mikel Urdangarinek abesten eta Pilarrek maite duen abestiak esaten duen bezala? Nire iritzia baino ez da, baina ez zait iruditzen. Amak esaten diguna, edo bizikideek eskaintzen diguten laguntza, esaterako, txikiegia al da inoiz?

Aritz Branton
Donostian, 2017ko ostailan

Giltza

Ateak zarratzeko balio dute giltzek; kanpoko etsaia etxe barrura sar ez dadin, sarraila handiak jartzen ditugu, eta giltza giltzapean gorde. Babestu egiten gaituzte ate itxiek, gure baitan eroso sentiarazten gaituzte. Boterea ematen digute giltzek; gotorlekuak sortzen dituzte giltzek.

Ez horretarako soilik, ordea.

Itxitako bideak zabalarazteko balio dute giltzek. Kanpotik datorren aire berriak gure etxeko bazterrak garbituko baditut, ateak zabal-zabalik behar dira. Arnasberritu egiten gaituzte giltzek irekitzekoak direnean, kanpokoarekiko abegikor bihurtzen gaituzte. Benetako boterea ematen digute, bai, munduaren aurrean nor garen erakusteko bidea ematen digutelako giltzek.

Eta duda-muda horretan joan zaigu, beste behin ere, urtea. Giltza eskuan dugula, zein aldetara jiratzea komeni den ez dakigula. Bidegurutzeak deserosoak dira, definizioz. Hautuak esfortzua eskatzen duelako edo, diot nik. Eskumara eginez gero, ezkerrera eginez gero... Azken baten, ez ditugu hautuak maite aukeratzeak galtzea dakarrelako berekin bat. Hori ere, definizioz.

Urte zaharra zelan joan den gure buruari galdetzeko unea den honetan, nork bere zerrenda propioa eta besterenezina osatuko zuen honezkero. Gutxi axola du orain, ate berriak, aukera berriak ditugularik aurrez aurre, hautuak norantz eramango gaituen ez dakigula, bideari ekitea dagokigu. Eta nahasmendua nabari zaigu. Halaxe sentitzen naiz orain, halaxe sentitzen naiz beti benetan berria izatea gura dudan urte berriaren atarian.

Nahasiak dira sentimenduak. Horrexegatik: sentimendu hutsak direlako, arrazoiazen galbahetik iragazi gabeko sentipenak, pentsamendu izatera iristen ez direnak. Barru-barruko kontu txikiekin txirikordatu zait gogoia lerro hauek idaztera jarri naizelarik. Adiskide batek giltza bat oparitu zidan duela gutxi, eta eskuetan eduki dut luzaz, norantz jiratu ez nekiela. Urte berriak jarri nau arrastoan. Irekitzekoak ez diren giltzak ez ditut maite. Zabal-zabalik nahi dut.

Atzizkiak

Hitzak ez dira ezerezetik sortzen. Hitzak beharrak sortzen ditu: adierazi beharrak, barruko mamuak askatu beharrak, premiak elkarri aitortu beharrak... Hitzak ez dira errugabeak, hortaz: hitz egiten duenaren isla dira hitzak, haren kulpa guztien ispilu.

Asteon atzizkiei erreparatu diet behin baino gehiagotan, hitz-erro beraren bihurtzeetan barna nindoalarik. Tresna egokiak dira atzizkiak hitz berriak sortzeko, hots, behar berriak asetzeko.

Ulergarria, ulergaitza eta ulertezina; erro beretik sortutako hiru berba, elkarren osagarri eta kontrajarriak, aldi berean.

Adibide bat besterik ez da. Jo dezagun sinistu egin dugula behin eta berriro esandakoa: gaur egungo Europan estatu berriak bake-bidetik sortzea ezinezkoa da. Sinistu egingo genuen azkenean, askori ulergaitza gertatu arren. Ulergarri egiteko, hamaika foro antolatuko ziren: nor bere arrazoiak emango zituen, zein baino zein ozenago.

Kosovok, ordea, ezina ekinez egin du, eta gaurdanik herrialdea da, herri oso, berezko herri. Ezinezkoa zirudiena egingarri dela ikustean poztu egin naiz, geratzen zen aukera bakarra bortxazko bideetan abiatzea zela ziotenek argumenturik gabe geratu baitira.

Beste batzuei ez zaie batere gustatu gertatutakoa, eta hori ere, ulergarria da. Kontrako ahotsak ozen entzuten dira, eta guk are ozenago entzuten ditugu, guri begira jarrita daudelako bozgorailuak. Errusiak, Serbiak, Espainiak eta beste batzuek nekez onartuko dute Kosovoren independentzia, hitzak berak barru-mamuak askarazi dizkielako. Eskubide-kontua izan liteke, noski; ez du nik kontrakoa esango. Barru-mugak ikusteko modua, nortasun-kontua ere izan liteke, jakina. Eta baita kutsatze masiboaren beldurra, diot nik.

Jarrera guztiak dira ulergarri eta defendagarri. Jarrera horiek bake-bidetik adierazteari ezinezko iriztea, ordea, erabat ulertezina da. Horra, bada, atzizkien magia.

Liburuak

Orain dela pare bat urte edo, Pinocheten kontra zabaldutako auziaren inguruan jakin genuen begi txiki eta bihotz idortuko militarrek txiletarren ondare kulturalako bitxi preziatuak gorde egin zituela, ostu egin zituela, eta liburutegi erraldoia osatu zuela, adituek desagertuzat jotzen zituzten alea askorekin. Itxura guztien arabera, Allende presidentearen kontra matxinatu eta bere terroria ezartzea lortu zuen garaian lapurtu zituen ale preziatu horiek. Denetarikoak. Historiari buruzkoak gehienak, eskuizkribuak asko eta asko, txiletarren ondare kulturalako parte garrantzitsua ia guztiak.

Zertarako? Auskalo. Pinochet bera izan zen filosofia ezkertiarra eta marxismoari buruzko liburuak erretzea agindu zuena, gerora jakin dugularik txingarrek hartu ez zituzten ale bakanak berak gordeak zituela, eta hainbat ohar idatzi zituela, eskuz, orrialdeetako batzuetan. Marx, Vakunin, Engel, Gramsci eta Althusser omen zituen gogoko.

Suak askotariko altxorrek hauts bihurtu ditu orain baino lehen. Irudi gogoangarriak dira, beste askoren artean, Hitlerren garaikoak, eraikin ofizial, eskola, museo eta baita etxe partikularretako atarietan ere piztutako suteak. Edota Sarajevoko liburutegi ederra garrek txikitu zutenekoa. Edo Donostiako liburu-dendaren kontrako atentatuak, kale-borrokaren esparruan kokatu arren, inteligentziaren kontrakotzat sailkatu behar direnak.

Era guztietako diktadoreei liburuak erretzea, edota alferrik pilatzea, atsegin zaie. Mundua toki atseginagoa zatekeen liburu horietako bakan batzuk, behintzat, irakurri izan balituzte.

Liburuak ez dira objektu soilak. Sailkatu, kolekzionatu, erosi, saldu edo lapurtu daitezkeen arren, liburuak ez dira edozein merkantziaren pareko gauzakiak. Liburu batek atea zabaltzen dizkizu, hala aukeratuz gero, nahi beste mundutara sar zaitezten. Aspalditxo honetan egin diren azterketa guztiak bat datoz: gero eta gutxiago irakurtzen da, gero eta inpaktu kultural eta sozial urriagoa du literaturak. Hortik uler daiteke, bada, Pinochetek lapurtutako liburu horien falta nabaritu ez izana.

Gaixorik

Osakidetzako psikiatria unitateetan gainbehera sumatu dute aurten, aspaldiko partez. Gaixotasun edo patologia larriek bere horretan jarraitu dute, baina arinagoak edo ezaugarri sozialagoko agerpideak beste baliabide batzuekin tratatzen hasi dira zerbitzu ofizialetan, laguntza-talde edo antzekoetan. Itxura denez, handik dator azken hilabete hauetako murrizketa.

Joera, alta, erabat bestelakoa da. Azken 20 urte hauetan, izan ere, etengabe handitu dira buruko gaixotasunekin lotutako kontsultak gure artean, geurea bezalako giza talde ia guztietan sumatu den joera eta intentsitate berberarekin. Eta panorama ez da batere lasaigarria: adituek diotenez, buruko gaixotasunak gero eta usuago izango dira datozen hamarkadatan, eta izurrite bilakatu dira laster. Erosotasunean, kritikarik gabeko heziketan, konplazentziaren gizartean larratu izanaren ondorioak dira, antza.

Gaixorik gaude, eta ez dakigu norengana joan. Ospitale psikiatrikoetara iristen diren kasuetako asko, ia guztiak, gizakia bera bezain zaharrak dira. Maitasun kuitek min egiten digute, talderen batera egokitzeko ezintasunak gaixotu egiten gaitu, bakardadeari ezin diogu aurre egin, eta abar luze-luzea. Ez dira soilik oraingo kontuak, gaur egun izugarri hedatu badira ere. Orain dela gutxira arte, ordea, beste toki batzuetan “konpontzen” ziren horrelakoak: senideekin hitz eginez, lagunartera lotuta, edota adiskide hurkoaren bizkarrean babesa hartuz. Gurean, ordea, gero eta gehiago bizi gara familiarik aparte, lagun-talde sendorik gabe, hiri batetik bestera... sarerik gabe, bihotzak min egiten duenean nori azaldu ez daukagula.

Gaixorik gaude, eta ez dakigu esaten. Sentimenduez osaturiko izaki bizidunak gara. Sentitzen garelako gara, hain justu ere, bestelako animaliak ez bezalakoak. Adimendunak, sentimen konplexudunak. Kapaz gara, ordea, sentimenak eta adimena lotuz zer gertatzen zaigun azaltzeko? Ezezkoan nago. Aztertu zeure burua, irakurle. Norbaitek “zer moduz?” galdetuz gero, zer erantzun ohi duzu? Ongi esan beharko... kasurik onenean.

Notak

Etxean bertan gertatu zen aspalditxo. Anai gazteak notak ekarri zizkien gurasoei, eta irakurri ostean, mutikoari begiratu eta “orduan, zer?” galdetu zioten, “aprobatu edo kateatu egin duzu?”. Ulergaitza egin zitzairen gurasoei irakasleak papertxoan jarritako esaldi horiek: “egoki dihardu, baina hobetzeko asko du” edo “jarrera egokia erakusten du, baina hobetu beharra dauka”. Askoz xeheago uler zitezkeen garai bateko notak.

Ni neuk oraindik daukat etxean gorderik nire nota-koadernoak. Hori-horia da, tapa gogorrekoa. “Ikaslearen izena” dio azalak (“nombre del alumno”, artean euskarazkorik ez zebilelako gure artean, ezta ikasle neskarik ere, itxuraz); eta han, eskuz jarrita, neure izena dator. Orduan Oinarrizko Hezkuntza esaten zitzaion eskolaratzearen lehen kate-mailari. Kartilatxo hori da garai horretatik gorde dudana bitxirik preziatuenetakoa, eta han zerrendatuta, urtez urte lortutako emaitzak. Harrotasunez erakutsi ohi ditut “sobresalienteak”, eta azkar samar pasatzen naiz “insuficiente” eta “suficiente” gupidagabeen ondotik. Berdin-berdin begiratzen zizkiguten nota horiek gurasoek; ñabardurari erreparatu gabe, ohar gorri salatarien peskiza soilean.

Datorren urtean, itxura guztien arabera, atzera egingo du eskolak, eta tarte luze baten ibilitako zuzentasun politikoa apur bat leundu egingo da, nota ulergarriagoak ipintze aldera. Ikasleen arteko lehia eta kalifikazio negatiboak sustatzen zituzten ereduak gaitzetsi egin genituen bere garaian, eta orain atzera datoz jarrerak. Badatoz, beraz, berriro “gutxi”, “nahikoa”, “ongi”, “oso ongi” eta horrenbeste desio genituen “bikain” horiek. Bigarren zikloan, zenbakiak ere berrerabiliko omen dira hemendik aurrera. Salbuespen bakarrarekin: nornahiri koloreak gorriarazten zizkioten 0 eta “oso eskasa” horiek berrikusketatik kanpo geratu dira.

Hitzak baino ez dira, badakit. Azterketak amaitu berri dituzten gazteei ez die asko axola orain, baina etorriko da iraila eta bere sargoriak. Etorriko dira.

Nahi eta ezin

Hiri handietan kaleko sargoriak erre egiten du oinetan, asfaltoak kea dariola agurtzen zaitu hiri handietara sartzean. Eta bertan, hara eta hona dabil jendea, jendetza, kalerik kale, erakusleihoan begiak iltzatuta, auskalo zein pagotxaren esperoan. Merkealdiak dira, udako merke-garaia, eta itxura guztien arabera, merke-zurrean ibiltzea dagokigu, azken bolada honetan zabalegi diruditen poltsiko hutsetan txanpon bakanek oihartzun egiten baitute eskua sartzean. Jendea kexu dabil, dirua urri baita: eta kexu dira dendariak ere, ekonomiak eta eguraldiak ez baitute batere laguntzen merkantziak arintzeko.

Eskarparate deigarrien atzetik etxe soilak ageri dira. Atari ia guztietan “salgai” dioen kartela ikus daiteke. Bi atariz behin geratu egin zaitezke etxea erostekotan bazabiltza. Denda eta ostalaritzako negozioekin antzera gertatzen ari da. Erakunde publikoek abian jarri dituzte larrialdietako laguntza-mekanismoak, krisiak geure ekonomia handian eragin dituen zuloak estaltzeko balio izango dutenak. Hala bedi.

Txanponaren beste aldea ere egunero ikusten dut. Aireportu ondoan bizi naiz, eta inguru bertsuetan lan egiten dut. Ondorioz, buru gainean izaten ditut, jira-biraka hegazkinak aldiro. Ezin saihets nezakeen trafiko zaratatsu horrek eragiten didan metafora erraza: metalezko amets-ontziak dirudite makina handiek, beren sabel emankorretan daramatzatelarik aisialdia deituriko aberriko erromesak. Uretan zehar pilaturiko nekea eguzkipean uxatzera doaz, aurreztutako sosak hamabost eguneko egonaldi zoragarrian xahutzera. Irabazitakoak dira oporrak, merezi ditugunak. Zalantzarik ez. Nola uztartu, orduan, nahia eta ezina?

Izan ere, merkealdiak, udako oporrak eta krisiak (desazelerazio azeleratuak, edo...) bat egin dute egunotan. Egun bertsuetan, esan nahi dut. Aski esanguratsua da metafora, ez da? Etxebestetarrak ditugu gogoan: auzokoen iseken beldur, udako oporrak etxean igaroko dituztela nola edo hala ezkutatu behar duen familia, hain zuzen.

Aniztasuna

Gure eskola garaian, txikikeriak gora-behera, haur guztiak berdinak ginen. Familiak ere antzekoak, igual-igualak ez ziren kasuetan. Herri txiki edo handikoak ginen, baina herri berekoak guztiak. Arrazarik ez zen gure artean, edo arraza bakarra, zehatzagoa esatearren. Azal kolore bat eta bakarra zelakoan, adiskide beltzak, beltzaranak edo horixkagoak iristeak aparteko aldaketa ekarri zuen gure artera. Ez zen hori eskola garaian gertatu, askoz geroago baizik. Ordurako mundua ezagutzen genuela uste izateko harrokeria bagenuen, edota ordurako munduan horrelakoak bazirela ikasita genuen liburu eta telesailetan. Eskola garaian ez zen horrelakorik. Gure mundu txikia autobusaren azken geltokian amaitzen zela eta, herriko guztiok elkar ezagutzen genuela, mundua guregandik urruti samar geratzen ziren herrialde exotikoek osatzen zuten.

Gaur egun, ordea, dena da desberdina. Familia-eredu bakarra ez dagoela ikasi dugu. Enekok bi ama ditu, eta Anderren ama oraintxe ezkondu da; haren bikote berriaren familia osoa etorri da Bogota izeneko hiri batetik. Gure haurren eskolan kolore, jatorri, kultura eta hizkuntza aniztasuna eguneroko ogi bihurtu da aspalditxotik. Zorionez. Ali Marokotik etorri da duela gutxi bere senitartekoekin. Karenen azal beltzaranak salatzen du jatorria, eta guraso euskaldunek adoptatua dela kontatzen dizu, harrotasuna, ezjakintasuna eta inozentzia nahasten dituelarik esaldi berean nondik heldu den galdetutakoan. Naiara gormutua da, baina hizketan ongi moldatzen dira harekin gelako adiskideak, zeinu-hizkuntza ikasten ari baitira eskolan.

Xehetasun txiki batzuk gora-behera, nire belaunaldiko gehienok adierazitako eskola-bizitza izan dugu, kolore bakarreko errealitatearen larrean hazitakoak gara-eta. Eta xehetasunak gora-behera, gaur egungo gure seme-alabek ere azaldutako aniztasun-esperientzia bizi dute egunero eskolan, kalean, jolas-orduetan. Aldeak handiak ez ezik, funtsezkoak dira. Mundua desberdina da; ez hobe, ezta txarragoa ere. Diferentea. Beraiek ere desberdinak izango dira munduaren aurrean: geu baino askoz irekiago beharko lukete, behintzat.

Berutzen

Etiket kanpora hamar bat egun igaro behar dituzu. Oporrak, azkenean. Ohiko erritmoarekin, gauzak egiteko moduarekin, apurtzeko aukera. Behar duzu, esaten diozu zeure buruari; merezi duzu, esaten dizu zeure buruak. Tarte bat da, parentesia.

Antolatzeari ekin diozu, eta ez da batere erraza maletak prestatzea. Zerrenda ahalik eta osatuena egiten saiatu zara, ezertxo ere faltan ez botatzeko moduan ibili ahal izateko. Dena antolatuta behar da, dena behar den bezala doala seguru sentitu nahi duzu eta. Kosta egiten da atsedena prestatzea; izugarritzko nekea dakar. Ez duzu, ordea, lehenengotan etsiko, eta lortu egingo duzu azkenean. Dena prest.

Badaezpadakoez gainezka doaz maletak eta autoak. Segurtasuna, kontrola. Horiexek behar dituzu etiket kanpora emango dituzun egun horietan ere. Urtean zehar bizi izandakoa apur bat alde batera uztea komeni dela esaten diozu zeure buruari, baina autoaren atzealdeari begiratu diozunean, zeure eguneroko bizitzaren bertsio laburtua maletatu egin duzula aitortu behar izan duzu.

Bizitzaren alegoria distortsionatuan bizi gara oporraldian ere. Uste handian izaten dugu geure burua, eta finean, inozo hutsak gara. Ezinezkoa da aldapan behera doan gurpil handi bat fede hutsarekin geraraztea. Zaude lasai: errua ez da zeurea, fisikarena baizik. Nekea gurpila bezalakoa da, berezko erritmoa du eta. Eta bizitza bakailoaren antzekoa da. Iraun arazteko gatzak behar du hark, eta baita geuk ere; baina egiazki gozagarri geratzea nahi badugu, denbora behar izaten du bere onera itzultzeko. Bizitzan berdin-berdin: lantzean behin, presarik gabe beretzen jarri behar izaten da.

Garai baten oporrak hiru hilekoak ziren, eskolaren erritmoari segituta antolatzen baitziren familiak. Gurasoek ez gintuzten udalekuetara bidaltzen, eta geuk joan beharrik ez genuen, etxean beti egoten zelako norbait haurren kargu hartzeko. Ez genuen batere denborarik galtzen oporraldia non igaroko genuen pentsatzen, urteroko toki berberetara itzultzen baikin, udako erromesok. Eustatek esan digu orain hobeto bizi garela duela hamar urte baino, eta bat nator inkestarekin, baina... "Bainak" axola zaizkit urteroko erritmoa prestatzeari ekin behar diodan honetan.

Musua

Etxera ekarri dute azkenean Argi. Urduri zeuden beren gurasoak, eta urduri geunden harrera-festa bitxi horretara deitutako adiskideak. “Mongolian jaiotako gure alaba” esanez aurkeztu dute guraso berantiarrek munduari nola begiratu behar dion ez dakien bi urteko neska ederra. Irribarre egin dugu guk, eta baita neskatzak ere. Harengana nola hurbildu behar den oso ondo jakin gabe, barne-senak gidatuta edo, urreratu natzaio, eta musu bat jarri matrailean, leun eta argia iruditu zaidana. Neskak atzera egin du, keinu izutuarekin. Aita berriak azaldu dit Argiren jaioterrian ez dela batere usua hurrei musua ematea. Kariñoa adierazteko modua omen da bertan elkarri burua usnatzea. Gure artean sortu da kode berria, eta harriturik samar begiratzen badigute ere, haur-eskolara bila joan naizenetan halaxe agurtzen dugu elkar. Buru atzealdean sudurrarekin kilimatzeke aprobetxatzen dut nik gure agur partikular hau.

Maoriek ez diote elkarri musu ematen, eta horren ordez, hozka egiten dute matrailean, besoetan, lepoan. Txinan eta Finlandiako hainbat herrialdeetan ere erabat ezagunak dira ezpainen dantzak. Munduan ba omen dira 650 milioi pertsona, populazioaren %10 inguru, musua zer den ez dakitenak.

Egunean zehar ez dakit zenbat musu ematen dizkiedan nire alabei. Esnatzean musukatzen hurbiltzen naiz, eta lotarako orduan musuak eman eta musuak jasotzen ditut nik. Iritsiko da momentua, badakit: ez horrenbeste besarkatzeko, adiskideen aurrean maite zaituka ez agurtzeko esango didaten momentua. Pitsbourg-eko beste ikertzaile batek KISS-1 izeneko genea aztertu du eta bere iritzi, baliteke haren barne-mekanismoetan egotea haurtzarotik gaztarorako bidea abian jartzen duen suzia. Bien bitartean, ordea, musua da gure artean hitz egiteko modu berezia.

12 kaloria erretzeko, 36 muskulu batera abian jartzeko eta bihotzaren taupadak 60tik 110era igotzeko ez da aparteko ahaleginik egin behar. Musu bakar batek hori guztia ematen digu; eta baita gorputzaren lege fisiologikoen aurrean txiki geratzen diren hamaika sentsazio gozo eta eder ere.

Egiak eta haurrak

Guk zertan sinesten dugu?, galdetu dit alabetako batek, eta mutu utzi nau. Bi zeru omen daudela entzun ei du hor nonbait. Bata urdin-urdina da, lainorik gabea, eta honexek hartuko omen ditu bizitzan zehar zuzen jokatu duten pertsonak heriotza iritsiz gero. Bigarren zerua ez zaio batere gustagarria gertatu, ekaitzaren kolorekoa omen delako, eta are kezkarriagoa dena, berau izango delako bizitzan zehar zekena izan denaren azken etxea. Bi zeru, bizi garen artean egingo ditugunak horietakoren baten garbitzeko. Mutu geratu naiz. Eta bera nire erantzunaren zain.

Noiz hil egingo zara zu?, galdetu du beste alabak, adinez eta jakin-minaz bere ahizparen ezpal berekoa denak. Mutu utzi nau. Entzun omen du hor nonbait jaioz gero urte-kopuru zehatz bat emana zaigula, bizialdian zehar gozatu behar duguna. Txiki-txiki jaiotzen garela, baina denborak luzatu egiten dituela gure hezurak eta muskuluak, tamainako izaki bihurtzeraino. Hortik aurrera, beheraldia omen dator, eta zimeldutako loreen antzera, isiltzen, deusezten hasten garela, lurpean erabat idortu arte. Zenbat udaberri geratzen zaizkizu?, galdetu dit, eta mutu geratu naiz, berak nire erantzunari alferrik itxaron dion bitartean.

Ispilu desitxuratu gabeak, idatzi gabeko orri zuriak, aparteko abenturak eta istorio txikien egarri noiznahi eta nonahi agerrarazten duten animalia txikiak. Halakoxetat hartu izan ditugu txikiak, eta bada horrela ulertzeko motibo garbia: garrantzitsu sentiarazten gaituzte, derrigorrezko. Beste edozein sentimendurekin konparatzerik ez dagoen sentsazio horren ordainetan, ordea, maiz ataka gaiztoan jartzen gaituzte. Zaurian piku egiten dakite hizketan hasi orduko. Azalpen axalekoekin nekez konformatuko dira, egia nahi dutelako. Zirrikiturik gabeko egiak, seguru sentiaraziko dutenak. Erantzuna eskatzen dute, baina bizitzan, tamalez, gutxi dira seguru sentiarazten gaituzten egiak.

Argi-metxak

Atunaren kosterara abiatu aurretik, Bermeoko itsasontziek bi itzuli egiten dituzte ababor eta istribor Gaztelugatxe aurrean. Beren sirenak joz, zortea (edo dena delako patua) aldekoa izatea erregutu diote aurten ere Tenplarioek sortu ei zuten Doniene baselizako nagusiari. Urteak joan eta urteak etorri, itsasontziek errito berbera errepikatzen dute. Zergatiaz galdetu dudanean, “kalterik ez du egiten” erantzun dit atunaren bila irtetekotan zegoen arrantzaleetako batek. Puntako teknologiaz hornituriko sistemek gidatzen dute kostera gaur egun; argi mordoa dago aginte-panelean eta arrantza ugariko guneak erakusten dituzten mapei jarraitzen diete, traza estatistikoak lagunduta. Garai bateko artea ia zientzia bihurtzeraino eraman du aurrerabideak eta hala ere, Gaztelugatxe ikusgarriaren ondotik pasatzean, usadioari jarraitzen diote, eta bere aurrekoek erakutsi zieten moduan, itzuli bi egiten dituzte.

Arazoi berberarengatik, kalterik egiten ez dutelako, aurrekoek egin moduan agurtuko dugu gaur Udako Solstizioa. Ilundu orduko, sua piztuko dugu eta haren epeltasunean elkartuko gara elkarri eguzki-bira berria emankorra izan dadin opaz. Joan den urteaz geroztik etxeko atarian ditugun erramuak botako ditugu sutara, eta berria eramango dugu bueltan, garrak erabat amatatu aurretik haien gainean salto egin eta gero. Federik gabe, baina konbentzimendu osoz.

Ez da logikoa, ez da garai txinpartatsu hauekin erraz ezkontzen, baina ohitura zaharrei eutsi egiten dien herria da geurea. Aurrekoek utzitako zoruaren gainean eraikitzen ditu hurrengoak berea, eta hura eraitsitakoan, oinarri berbera baliatzen du ondoren datorrenak. Etorkizuna ez da plater garbi eta erabili gabeetan zerbitzatuko otordua, iraganeko geruzekin osaturiko lasagna modukoa baizik, zaharra eta berria nahastu egiten dituen.

Atsegin dut zaporeen konbinazioa, garai batekoa den guzti-guztia baliogabe uzteko joera nagusitzen ari zaigularik, argi-metxa bezalakoak baitira gaurkoa bezalako egunak: ilunpetik ateratzen gaituzte, bidean lagungarri.

Badaezpada

Mendiko botak eta makilak eramaten ditugu automobileko maletategian beti, badaezpada. Auto zaharra erretiratu eta berria hartu genuenean, horixe sartu genuen aurrena, badaezpada. Hiru urtetan, ez dugu sekula erabili, mendira joan garenetan propio prestaturiko irteerak izan baitira ia guztiak, ez bat-bateko apetak eragindakoa. Baina hor dago bizkar-zorroa, badaezpada. Egun batzuetarako oporrak hartu ditugunean gogoratu gara bertan zegoela, ateralditxorako maletak ez baitziren kabitzen. Badaezpadakoak traba egiten zigun.

Beldurrekin beste horrenbeste gertatzen da. Badaezpadako beldurrez zamaturik ibiltzen gara, noizbait behar izango ditugulakoan, ataka gaiztoaren batetik ateratzeko, arriskuari aurre egiteko, ihes egiteko, babesteko... batek daki zertarako. Ikasi egin dugu, ume mokoak ginenez geroztik hamaika aldiz esan izan digutelako. Ikasi egin duzu, adibidez, badaezpada kontuz ibili behar dugula leku isolatuetan, norbait agertu ahal delako. Badaezpada komunera joan behar dugula beste adiskide batekin, erasotua izateko arriskua gutxiagotzeko. Badaezpada ez dugula gustukoa duzun soineko eder hori jantziko, hankak eta bularraldea ageri samar eramatea arriskutsua delako. Ohitura bilakatu da guretzat, eta honezkero ez diogu gure buruari galdetzen zertarako diren beldur horiek, barneratu egin ditugu-eta. Guztia, gainera, geure onerako denez gero, nola uko egin hori guztia normaltzat hartzeari?

Pisu gehigarria daramagu emakumeok bizitzako maletategian eta nahiko genituzkeen gauzetarako lekuri ez zaigu apenas geratzen. Hala ere, ez da nahikoa. Beldurrak aidean bada ere, jipoitu egiten gaituzte, bortxatu egiten gaituzte, hil egiten gaituzte. Etengabe.

Guk ere, emakumeok ere, maletategian nahi beste amets eta askatasun-ale sartu nahi ditugu, baina denon artean eraiki ditugun badaezpadako beldur horiek leku gehiegi hartzen dute gure bizitzan, arnas egitea oztopatzerainokoa.

Besteak beste, komunera bakarka joan, noiznahi nonahitik beldurrik gabe ibili eta nahi duten moduan janzteko aske diren gizonen ere honetaz gogoeta egitea nahitaezkoa da. Eta oso urgentea.

Bazterbideak

Egunotako hego haizeak kanposantuetako loreak zimelduko zituen honezkero. Joan den igandeko erromesaldiek ohiko isiltasunari egin diote bide, eta hutsik daude berriro hilerriak. Salbuespenak salbuespen, hainbat kanposantuetako sarreratan irakur daitekeen esaldia bete-betean konplutuko da hemendik aurrera eta hurrengo azaroa bitarte: “egiazki bakarrik gaude”.

Bide-bazterretan ere lore-sortak ugaritu dira egun hauetan eta autoa gidatzen noala bestaldera begiraten saiatzen banaiz ere, ikustearekin batera ezinegona eragiten didate. Gehienak trafiko-istripuetan joandakoei keinua egitekoak dira, baina aurten Memoria Berreskuratzeko Elkartek Espainiako Gerra Zibilaz geroztik falta diren 114.226 herritar gogoratzeko lore-sortak ipintzeko deia egin du. Kopurua oso zehatza da, Elkartek berak emana, ez ez ditu gerran hildako guztiak hartzen, ahanzturaren tolesetan desagerrarazi zituztenak baizik. Bakan batzen gorpuzkinak berreskuratu diren arren, kopuru hori bezain luzea da oraindik aurkitzeke daudenen zerrenda.

Urteak igaro dituzte lore-sortarik gabe, eta horrela jarraitzen dute hildakoei, eta baita beren senitartekoei, beren samina agertzeko nora jo ez dakitelarik. Gainerako hildakoak bezain bakarrik daude horiek lurperatuta, baina lekuz kanpo, balizko zigorra belaunez belaun iraunari duen modu krudelez.

Hiltzeko tokiak daude, bizitzekoak dauden bezalaxe, eta errepideak ohikoak badira ere, ez ditugu azken hatsa egiteko leku egoki gisa hartzen, nonbait. Ez ditugu loreak ipintzen ohe-buruetan bertan hildakoak gogoratzeko, ezta ospitaletako ebakuntza-geletan ere; bai ordea, bazterbideetan eta han ezarritako lore bakoitzak memoria lurpean ehorzteko egindako saiakerari hozkada egiten dio.

Jose Saramagoren olerki bat errezitatuz egin dute nik oso hurbiletik ezagutzen dudana bide-bazter baten lore-eskaintza: “Daukagun memoria gara eta geure egin dugun erantzukizuna baino ez gara. Memoriarik gabe ez ginateke existituko, eta erantzukizun hori gabe, ez dugu existitzea merezi”.

Deseroso

Karmelek 32 urte ditu, altua da eta ilehoria. Oso ilehoria, azal argi eta begi urdin-urdinak diren pertsona modu horiek izaten diren bezalakoak. Ilehoriegia eta altuegia eskolan eta adiskideen artean nabarmen ez gertatzeko. Buruz gogoratzen ditu haien txantxak eta isekak, lehengusuen artean ere maiz gertatzen zirenak. Alaba bakarra da eta ez du zerrekin konparatu, ez bada bere gurasoekin edo izeba-osabekin: diferentzia handiarekin, bera da altuena eta ilehoriena. Desberdin izate hori zein gene bihurri zor ote zion galdetzen zion amari gaztetan, baina amak begiak jaisten zituen lurrera, deseroso. Halaxe sentiarazi izan dio amak haurtzaroko kontuez galdetu izan dion guztietan. Bereziki azken bolada honetan, Karmele haurdun geratu denez geroztik. Begoña ere deseroso sentitzen da lapurtutako haurren kontua agertu denetik. Hil zitzaionez geroztik askotan gogoratu izan da erizainak erakutsi zion jaioberriaz, bere alabaz, eta auzi honek orduko ezinegona berritu egin dio. Begiak itxita zeuzkala ezagutu zuen ospitaleko ohean alaba, eta horixe da bere haurraz duen oroitzapen ia bakarra. Nolakoa zatekeen gaur egun gaixotasun arraro hark eraman izan ez balu? Neskaxa ederra, pentsatzen du Begoñak, gerora izan zituen beste bi mutikoen antza handi-handikoa: altua eta ilehoria izango zen neska hura, ia seguru. Bere anaien begi urdin-urdinak izango zituen honezkero 32 urte pasa beharko lukeen hildako alabak.

Karmeleri deseroso gertatzen zaio bere amaren deserosotasuna, eta hala aitortu die ospitaleko ohearen ondoan laguntzera joan zaizkionei. Bere senarra Mikelek haurdunaldiaren begitazioak direla dio, eta detaile txiki horiei inportantziarik ez emateko esan dio, irribarre eginez. Total, laster jaioko zaien haurra altua eta ilehoria izango da erremediorik gabe, halakoxeak baitira bai ama kezkatia eta baita aita bera ere. Mikelen amak, Begoñak, buruarekin baietz dio, baina begi urdinetan nabari zaio zalantza egiten duela. Duda egiten du Karmelek. Eta duda egiten du Begoñak ere

Edurne eta Rosa

Kaleko mugimenduari begiratzen diot maiz, atsegin baitut behatze hutsa, helburu zehatzik gabe han behean zer gertatzen ari den ikustea. Denbora ia oharkabean joaten zait horrelakoetan, eta maiz pentsatu izan dut alferrik ere ihes egiten didala, baina joan den astean, behatze hutsarekin asko ikas daitekeela konturatu naiz. Askotariko ibilerak izaten ditu jendeak, eta ibiltzeko modu horietako bakoitzak zentzuren bat izan dezakeela otu zait. Oker egon naiteke, jakina, baina ariketatxo honek asko erakutsi dit jendearen izateko moduz, zuzeneko harremanek beste, esango nuke.

Aurreari begiratzen dion jendea dago, alde batetik, eta begiak bere oinetan iltzaturik eramaten dituztenak bestetik. Lehenek datorrenari heltzeko indarra dutela ematen du, bigarrenek soinean daramatena babesten duten bitartean. Aurrera begira doazenek konfiantza eragiten didate; eskatuz gero, beraiekin batera ibiliko nuke bidea, bidegurutzetan aukera egokia zein den esaten asmatzeko gai direla iradokitzen dutelako. Aurrera begiratzen duen jendearekin edonora joan daiteke.

Aldiz, beren urratsak etengabe zelatatzen dituztenek errukia eragiten didate, gainetik kendu ezin izan duten arranguraren esklabo direla pentsarazten didatelako. Beren oin-puntuari baino ez diote erreparatzen, eta ez dira ohartzten, antza, zenbat bide eder uzten ari diren bazterrean, disfrutatzeke. Errukia, estropezu egiten dutelako behin eta berriro, eta estropezu eginarazten dietelako ingurukoei.

Joan den astean, behatzen ditudan gure herriko kaleetan alde bateko zein bestekoak ikusi nituen, ibilian. Ikusi nituen beren oinazearen gatibu diren batzuk, kopeta ilunduta, barru-minak erreminduta. Eta aurrera begiratzen duten bi emakume ausart ere ikusi nituen; alaba bata, emaztea bestea. Lore bana zeramaten eskuetan, atzean geratu ziren aita eta senarrari eskaintzekoak. Aurrera begiratzen duten bi emakume horiekin edonora joan daiteke. Ni neu behintzat, etorkizuna deitzen dugun leku horretara iristeko, emakume horietariko edozeinekin joango nintzateke, eta aukeran, biekin batera.

Eskerrik asko

Hizkuntza bat ikastea erabaki duenari jatorrizko hiztunetz inguratzeko eta oinarrizko berbak edo esaldietatik abiatzeko gomendatzen zaio. Izan ere, bertako hiztunek, hizkuntzaren barne-arauetatik harago, mintzaira berriaren doinua eskaintzen dute ahapaldi bakoitzean, eta oinarrizko hitz horien bitartez, letrak jartzen zaizkio melodiari, konplikazio handirik gabeko hartu-emanetan kantari moldatzen hasteko. Diosala egiteko, galderak egiteko, eskerrak emateko edota zerbait eskatzeko ez da hori baino askoz gehiago behar izaten, eta horretarako daude, hain justu, turistentzako propio argitaratzen diren gida mehe eta marrazkiz beteta dauden horietako edozeinetara.

Bertara hiru urte egitera etorri den Norvegiako lagun bat dut. Hilabete darama hemen, eta euskararekin ausartu nahi omen du berehala. Gidatxoa poltsikotik atera zuen aurrekoan, eta banan-banan ahoz gora esateko eskatu zidan, irakurrita beste zerbait delako. Agur eta egunon berehala identifikatu ditu, baina “eskerrik asko” arraroa egin zaio, itxura denez, gutxitan entzuten delako gure artean, bere irudiko.

Gutxi? Ezetz esan diot nik, oker dagoela. Ni neuk behintzat, eskerrik asko esaten diot ogia saltzen didanari, autobusean sarbidea errazten didanari, kalean estropezu ez egiteko baztertzen denari, eta baita behin eta berriro itxaroteko esaten didan telefonista lehorrari. Ez da gutxi... Kontuak egiten hasi orduko ohartu naiz, baina, zerrenda horretatik kanpora utzi ditudala benetan axola zaizkidanak. Aspaldidanik ez dizkiot eskerrak eman bizitza errazago egiten didan lagunari, ezta bizitzako zailtasunen aurrean kontsolamendurako berbak ematen dizkidanari ere. Ez diet maiz eskerrik asko esaten eguneroko irakasbidean irakasle ditudan alabei, ezta urteetan elkar ikusi ez dugun arren, aldi oro nire ondoan dagoela erakusten didanari. Zerrenda horretan beharko lukete, eta ez daude, eskerrak eman gabe joan direnak betiko. Beraientzat dira, bada, Eguberrietako suak biziberritu ditzan gaur gauean erreko ditudan damuak.

Ez alde, ezta kontra ere

Garai baten, “poesiaren alde eta poesiaren kontra” lehiatzen ginen adiskide batzuk taula gainean, herriz herri. Poeta handien lanak hartzen zituen talde bakoitzak bere argumentuak oinarritzeko, eta nork bere komenentziaren arabera aurkezten zizkien ikus-entzuleei. Poesiaren aldeko munduaren barne-tolesak agerian jartzeko modu sinple bezain sakon eta egiazkoa aldarrikatzen genuen, hitz biluzien edertasuna goratuz, eta jarraian poesiaren kontrakoek bertsoen hutsalkeriak agerian jartzen zituzten pasarteak irakurtzen zituzten, imintzioka, jarrera ridikuluak agertuz. Lehiaketan ez zen irabazle garbirik izaten, ezta erabateko galtzailerik ere, poesia, jakina denez, interpretazio kontua baita. Baina gauzak bi ikuspuntu desberdinetatik aztertzeko ariketa interesgarria izan zen, gerora ere aplikatzen saiatu izan naizena.

Zoritxarrez, nahi baino gehiagotan jo behar izaten dut orduko irakaspenetara, argi bila. Gero eta usuago suertatzen baita aukera bietako baten alde lerrokatu behar izatea, aunitz arlotan. Zuria ala beltza, nirekin edo nire aurka, geurea edo besteena. Mundua bitan banatzen dela iradokitzen dutenak nonahi ageri dira, eta azken boladan, guztiaren jaun eta jabe bihurtu direla ematen du. Beldur diet baiezko biribilei, eta baita ihesbiderik uzten ez duten ezezko erabatekoei ere. Eta beldur diet aukera biren artean soluziobide bakarra beren egia dela lau haizetara zabaltzen dutenei, dela kaleetan, dela hedabideetan, dela gure herrietako aginteerlekuetariko edozeinetan.

Bukatu zaigun urtea ez da ona izan, ezta desastrosoa ere. Jende askok gorriak ikusi ditu, baina beste askok bizitza alaiago, beteago, hobea egin dien dena delakoarekin egin dute topo urte honetan. Niri adiskide mina joan zait aurren, nire bizitzari orekan eusten zion habe horietako bat galdu dut, baina goizero-goizero irribarrea ezpainetan jaikitzen diren etxeko txikiek gogoratzen didate poesiak erakutsi zidana: “badira mila motibo kantatzeko alai”.

Geziak

Galdu egin nuen telebistak zuzenean eman zuen saioa. Gerora hamaika aldiz ikusi dut zuriz jantzitako arkulariak bete-betean asmatu zuela Bartzelonako su olinpikoa pizten, baina ez nuen zuzenean ikusi. Entzun dut litekeena dela guztia amarrua izatea, eta ordezeko sistema bat prest izatea geziak huts eginez gero beste modu batez piztu zedin, baina nork daki.

1992. urteko uztailan gutxi axola zidan niri Bartzelonako Joko Olinpikoetan zer jazoko zen. Gerorako oroitzapenengatik zerbait gogoratzen dut Sevillako Expoaz eta urriko Amerikako Aurkintzaren 5. Mendeurrenaz. Hemerrotekak zerrenda luze dakar urte horretako gertakariekin, baina gure etxean arreta gutxi eskaini genion aktualitateari. 1992. urtean, izan ere, Hernaniko Pedro Orbegozo lantegia itxi zuten eta gurean arrakala handi bat ireki zen, urteetan altxatutako eraikuntzaren zimenduetan dunbotsa ikaragarria sortuz. Hauskortasuna zer den ulertu genuen orduan.

1.500 langile izatera heldu zen altzairurtua lantzen zuen lantegi handia. 1.500 langile asko da, mundu bat, mundu kiratsu eta zalapartatsua, mundu laranja edo urdina, buzoen koloreen araberakoa. Sirenak adierazten zuen egunaren hasiera eta amaiera, eta sirenaren arabera antolatzen ziren ordu guztiak. Lan-txandak apuntatuta zeuden sukaldeko telefono gorriaren ondoan, egutegi hark aitaren orduak ez ezik, etxeko guztionak baldintzatzen zituelako. Gauez lan egitea tokatzen zitzaionean isil-isilik jaiki, gosalduta eta aterako ginen eskolarantz; arratsalde zegoenean, berriz, gaueko hamarrak arte eutsiko genion logurari, musu bana eman arte ez baikin oheratuko.

Mundu horretan bizi ginen gu, 1.500 langile horietako bat baitzen gure aita, eta 1.500 langile horietakoak baitziren gure adiskideak eta auzokide ia guztiak. Ni baino zaharragoak diren nire alabek gogoratzen dute bertara iritsi aurretik beste zenbait langintzatan jardun zuela aitak, baina nik "fabrika handia" baina ez dut gogoratzen. Lantegiaren sarrera trafiko handiko errepidean zegoen, albo bietan platanondo handiek inguratzen zutenak. Zuhaitz sendoak ziren, eta udaberrian arku bat sortzen zuten kotxeen gaintetik, bizitzak derrigor lantegi-sarreraraino eramango zintuela iradokitzen zuena.

Bizi ahal izateko lan egin beharra dagoela esaten zuen gure aitak behin eta berriro, baina 1992. urtera arte berak eta bere moduko gainerako 1.500 langile horiek lan egin ahal izateko bizi zirela esango nuke.

Askok lortu egin zuten; bizitzea, esan nahi dut. Tartean gure aitak, lantegia itxi zen urtean erretiroa hartzeko aukera izan baitzuen. Denboratxoa behar izan zuen oreka aurkitzeko, bizitza berriro ordenatuko zituen errutinak aurkitzeko, baina lortu egin zuen. Familia onik irten zen ataka gaizto horretatik, apur bat minberatuta ezustearen kolpeaz, baina onik. 1.500 horietatik zenbatek esan dezake horrelakorik?

Geroztik ez da buzo laranja ageri, ezta sirena-hotsik ere ez. Laster garai horretako oroitzapenak ere galdu egingo dira, altzairu galdararen ahutzetan desegiten zen modu berean.

Nire munduaren zati bat 1992. horretan desagertu zen, baina gaitz erdi, esan beharko nuke. Eskerrak gezi guztiek ez dutela beti bete-betean asmatzen.

Gogoratzuz

Atzo goizean gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut Donostiako hondartzan galdu nintzeneko arratsaldea. Ez dakit nola gertatu zen, beti leku berean jartzen ginelako, baina bat-batean bakarrik nengoela ohartu nintzen, jendez inguratuta eta bakarrik. Korrika hasi nintzen amari eta aitari deika, negarrez. Galdutako haurrak jasotzen ziren tokira eraman ninduten eta han egon nintzen bila etorri zitzaizkidan arte. “Se encuentran recogidos en las cabinas colectivas varios niños extraviados. Se ruega a sus familiares o cuidadores pasen a recogerlos a la mayor brevedad”.

Bost urte nituen, baina hitzez hitz gogoratzen dut bozgorailuen mezua, ume galdua izan nintzen ordubeteetan gogoan iltzatu zitzaidana. Egun batzuetan amesgaiztoak izan nituen, eta lasaitze aldera, berehala ahaztu egingo nuela esaten zidaten. Atzo goizean gertatu izan balitz bezala gogoratzen dudalako, ordea, alabekin hondartzara noan guztietan, begirik kendu gabe egoten naiz.

Onerako edo txarrerako, gogoratzen dugulako baikara garen bezalakoak.

Horregatik, oso kontu malkartsua eta labainkorra iruditzen zait egunotan mundu digitaleko gure arrastoak gogoratzeko edo ahazteko dugun eskubidearen inguruan dabilen auzia. Amaraunean gure arrastoak betiko eskuragarri izan ala norberak hala eskatuta ezabatzeko eskubidearen inguruko hika-mika berriro piztu da, eta iritzi finko eta irizpide garbirik ezean, hondartzan galdutako arratsaldea etorri zait gogora.

Ederra litzateke egun horretako izua ahaztu ahal izatea, eta baita gozakaiztu egiten nauten une eta sentipenak ere. Memoriatik ezabatuz gero, ordea, naizenaren parte bat galduko litzateke, galdu egingo nuke betirako. Naizena, garena, gogoratzen dugunari esker eraiki egiten baita: bizi izandako beldurra gogoratzen dugu eta beldurrari aurre egiteko prestatzen dugu gure burua, edota zoriontsu izandako uneak gogoratzen ditugu, eta behin eta berriro errepikatzen saiatzen gara.

Gogoratzen dudana bezainbeste maite dut ahaztu dudana guztia.

Jainko txikia

Amona zenak bizimodua lasai eta bere erara egiteko behar zuen guztia edukitzea aberatsa izatea zela esaten zuen. Aberatsa naiz, errepikatzen zigun askotan. Hala ere, senideen zulotxoak estali ahal izateko loterian jokatzeko zuen urtean birritan, beti zenbaki berberera, sekula zortedun egokitu ez zen zenbakira, hain justu. Beti dago zerbait, erantzuten zigun diru hori zertarako nahi zuen galdetzen genionean. Beti dago zerbait, zuloren bat, beharren bat, ongi etorriko litzaigukeen kapritxoren bat. Horretarako da dirua, esaten zuen amonak: txikikerietarako.

Amonarekin akorduan, poetek sortu duten “Jainko Txiki eta Jostalari Hura” izan nahiko nukeela erantzun diot nik loteria tokatuz gero zer nahiko nukeen galdetu didan adiskideari.

Jainko, edo jainkosa, izan nahi nuke emana ez zaidan ahalera eskuratzeko. Agur esan digun urteak berekin eramane dituen oroitzapenak berreskuratzeko, adibidez, edota zaharrago egin gaituen urtean burutzerik izan ez dudana akaberara eramateko. Entzun ez ditudan lagunen mezuak entzuteko, edota nire mezuak entzun ez dituzten lagunei helarazteko. Jainko edo jainkosa izatea gauza ederra litzateke bizitzarekin bakeak egin ahal izateko, pilaturiko zorrak kitatzen hasteko, behintzat.

Jainko txiki eta jostalaria izan nahi nuke nire buruarekin dudanean etengabeko elkarrizketa moztu ahal izateko, edo behingoagatik, nire baitan ezkututzen den demonio txikia mendean hartzeko. Ezin dudala esaten didan ahots hori isiltzeko, edo beranduegi dela gogoratzen didanean, ez entzuteko. Ederra litzateke horretarako gaitasunak izatea nire buruarekin bakeak egin ahal izateko, edo urteak joan eta urteak etorri pilatzen joan naizen zorrak parrean jartzeko.

Nik Jainko txiki eta jostalaria izan nahi nukeela esan diot loteriaren teman zetorkidan lagunari, baina hark alferrik dela gogoratu dit, diruak ez omen duelako horretarako ahalbiderik ematen. Amona zuzen zegoen: diruak txikikerietarako baino ez du balio.

Lantegiaren usainez

Nire haurtzaroak altzairurtuaren usaina du, eta metalezko txirbilaren soinua. Aitak Hernaniko Orbegozo lantegian egiten zuen lan eta hori ez da garrantzirik gabeko ñabardura. Gaur egun oso gutxi eragiten dio senideari gurasoen langintzak, baina garai hartan oso bestela zen kontua, lanak den-dena antolatzen baitzuen bere inguruan. Gure auzoan baserritarrak eta kaletarrak zeuden, eta gu bigarren multzokoak ginen. Lehenek lurrarekin egiten zuten lan, eta bigarrenek lantegietan. Tartekorik bazen, jakina, janari-dendakoak eta tabernetakoak zeuden, baina gutxi. Lana langintza baino gehiago zen duela gutxira arte, lan-merkatuari buruzko inkesta zenik ez nekien garaian behintzat. Aitak fabrikari egiten zuen, datu biografikoa zen harentzat eta bere senide osoarentzat. Amak etxean egiten zuen behar eta aitak lantegian: oso sinplea zen, eta bere sinpletasun horretan gauza asko azaltzen zituen, onerako edo txarrerako.

Aitaren arropetan itsatsita iristen zen etxera altzairurtuaren usaina, garbitzen zailak ziren arropetarako detergentearekin nahastuta zabaltzen zen bazter guztietara. Lantegiaren erritmoaren arabera bizi ginen denok etxean. Fabrikak ateak ixten zituen abuztuan, eta huraxe zen nolabaiteko opor-garaia denontzat. Gaueko lan-txanda bazuen aitak, egunez isil-isilik egoten ginen denok, eguerdira arte egin behar baitzuen lo. Arratsaldeko lan-txanda egokitzen zitzaionean, berriz, baimena ematen ziguten beranduago oheratzeko, eta lantegitik etorri eta musu eman arte zain eusten genion.

Ez naiz sekula izan Arcelor enpresak Sestaon duen lantegi handiaren barruan, baina inguruetan ibili izan naizen guztietan zerbait ezaguna sumatu izan dut giroan, aita zetorrela iragartzen zuen usainaren arrastoa edo. Badakit asko aldatu direla altzairu-lanak urte hauetan guztietan, eta labe garaien inguruak; gutxi dute, kanpotik ikusita, behintzat, nik gogoratzen dudana orube zikin, zaratatsu eta ia likatsu horietatik. Usaina, alta, berbera dela esango nuke, eta ez dut uste hori denik denboran zehar irautea lortu duen bakarra.

Enpresak lan-etena iragarri zuen egunean telebistaren aurrean entzun nituen bertako langileen kexuak, eta horiek ere oso ezagunak ziren. Aitarekin nengoen, eta «berriro» esan zuen berak ahopeka telebistari notiziaren nondik norakoak azaltzeko betarik ia eman gabe. Zertarako, baina? Ederki daki berak zer esango duten, nola bizi izango duten oraingo kalapita hau. Sestaoko Arcelorrekin iragarri

du ezinezkoa zaiola Txinako enpresek ezarri duten prezioaren lehiari aurre egitea, eta izango dute, noski, arrazoiaren parte bat. Inozoa izango naiz, baina esango nuke arrazoiaren beste partea beren lanpostuaren defentsan irten diren langileek dutela, lantegia bideragarria dela diotenak. Eta inozoa izanik ere erabat ergela ez naizela uste dudanez gero, esango nuke partida ez dela Sestaoko kaleetan jokatu, handik urruti baizik; eta ez direla bertako ugazabak ezta langileak ere norgehiagokan jardungo duten bakarrak.

Horretan ere, aitaren lantegiaren antz handia du Sestaokoak, atzeraldi ekonomiko bortitzaren erdian Hernanikoa itxi zuten garaiko solasaldi ia berberak entzuten ari bainaiz egun hauetan. Gogoratzen dut nola bizi izan zen hura guztia gure etxean, nola bizi izan genituen ordura arte geure bizimodua arautzen zuen ordena ia naturala apurtzea ekarri zuten gertakariak, protestak, grebak, aitaren eta haren lankideen nora eza eta kezka. Eta gogoratzen dut orduko soluzioak batzuk gogobete zituela, beste batzuk amorratu, eta guzti-guztiei bizimodu-aldaketa zaila eragin ziela, edo eragin zigula esan beharko nuke.

Sestaon, Landabenen... geure ekonomiaren zutabe izan den jarduera industrialak aldatzen ari da, eta aldatuko da are gehiago aurrerantzean. Lantegiak ez dira egundo nire haurtzaroko memoriak iraunarazi dien leku horiek izango, eta ezagutzen dudak apurrarengatik esango nuke laborategi itxura handiagoa izango dutela tailerrarena baino. Historian zehar etengabe gertatu dira eraldaketa teknologikoek bizkortu dituzten trantsizioak, eskutik helduta krisiak (handiak edo txikiak) ekarri dituztenak.

Oraingo hau ez da salbuespena izango, baina hori guztia ulertuta ere, ez nuke nahi zerbait funtsezkoa ahaztea: usaina. Lantegien usaina behar du herri honek, lan produktiboaren pultsua behar dugu, ongizate deitu izan dugun horri eutsiko badiogu. Bere gabezia guztiekin nahi bada ere, gauzak egin egin ditugulako izan dugu orain arte erdietsi dugun aurrerapen-maila. Gauzak egin ditugulako izan dugu industria, beste batzuk salerosketa hutsezko ekonomia espekulatiboaren tronpeta hotsek zoratuta zebiltzan moduan. Gauzak egiteari uzten zaionean, gauzak nola egiten diren ahaztu egiten da, eta orduan, gizarte asepticoa bihurtzen gara, usainik gabea. Etorkizunik gabea.

Lerro okerrak

Eskolan erakutsi ziguten eta, sinistu ez ezik, barru-barruraino ere sartu zitzaigun lezioa. Bi punturen arteko biderik laburrena marra zuzena dela esan zuen irakasleak, eta askori begien bistakoa irudituko zitzaien ikasbidea, handik ondorioztatuko baitzuten lerro zuzenari jarraitu behar zitzaiola helmugara iristeko.

Josuk ikasketak utzi zituen derrigorrezko hezkuntza amaitu zenean, hamalau urterekin. Bide zuzena hartu zuen lanaren mundura, eta etxe ondoko lantegian behargin jarri zen, aitaren lantoki berebean. Bizimodua aurrera ateratzeko lerro zuzena zen hura eta erabaki hura astakeria zela esan bagenion ere, hark argi omen zuen. Harrotasunez, eta ez harrokeriaz, egindako aukera zuzena izan zela esaten zigun Josuk; hark ordaintzen zizkigun tragoak gainerakoei, eta haren autoarengatik izan ez balitz, etxe-jiran jarraituko genuen oporrak egiten luzaroan. Ongi moldatu zen Josu urte askotan, erabaki zuzena hartu zuelakoan, gauzak aldatu eta bideak okertzen hasi ziren arte. Makina bat urte igaro dira geroztik. Aspaldiko partez aste honetan aurkitu dut, eta lanik gabe dagoela esan dit, lantoki zaharra joan den urtean itxi baitzuten. Autobus-geltokian topatu genuen elkar, ni etxera bueltan nindoala eta bera Lanbideren ikastaro bat egitera. Bizitzak zenbat buelta ematen dituen esanez agurtu dugu elkar.

Bide osoan pentsakor joan naiz. Josuren erabakia okerra izan ote zen argitu nahian ibili naiz, baina erantzun argirik gabe heldu nintzen nire geltokira. Ikasten jarraitu zuten asko egoera bertsuan daude gaur egun, lanik gabe edo lan eskasean, egindako ahaleginaren mailakoa ez den zereginetan soldata miserableen truke. Zuzen jokatu zuen, orduan, nire lagunak?

Ez dut uste. Bide luze eta malkartsutik jo zutenek, gutxienez, bizitza ez dela ia sekula jokaldi bakarrean erabakitzen ikasiko baitzuten, norberaren esku dagoen arma bakarra karta gehiago eskuratzea bada ere.

Geometriako irakaslearekin gogoratu naiz. Baliteke bide zuzena distantziarik laburrena izatea, baina ez du zertan bakarra izan beharrik.

Neure neurrikoa

Bernardo Atxaga eta Ruper Ordorikari zor diet euskaldun bihurtu izana eta zehatzago, "Henry Bengoa Inventarium" lanari, hura ikusi eta gero, niri ere zerbait hautsi zitzaidalako bihotzean: liluratuta geratu nintzen oholtzaren gainean jazotakoarekin, erdia baino ulertu ez banuen ere. Huraxe izan zen lehen bultzada, eta bigarrena antzokiaren atean bertan etorri zen, emanalditik ateratzean horren ukituta ikustean apustu egin baitzidan adiskideak, ezetz bi urteren buruan euskaraz jarduteko gai izan. Gaur arte.

Ez naiz batere epikoa. Ez nintzen euskaldun bihurtu euskara gure herriaren hizkuntza delako edota bertakook erabili ezean galdu egingo delako. Kezka horiek geroago etorri ziren. Ni gozamenetik eta jolasetik inguratu nintzaion: barrua astindu zidaten horiek ulertu nahiak eraman ninduen euskara ikastera eta hitz egitera, eta bide batez, adiskideari afaritxoa irabaztera.

Euskara ikasia naiz, ez etxetik ekarria. Nahi izan nuelako naiz, bada, euskalduna. Jendeak esaten zuena ulertu nahi nuelako, oinarrizko berbekin lehen hiztegitxoa osatu nuen, oraindik etxean dudan koaderno zahar baten. Magnetofoi batez grabatzen nituen, disimuluz, kaleko euskaldunen elkarrizketak, gero etxean landu ahal izateko, eta disgusturen bat edo beste ekarri zidan auto-ikasketako sistema hark. Baina nola disfrutatu nuen! Benetako gozamena izan ziren hizkuntzaren barne-tolesetan barrena eraman ninduten gau horiek, ordura arte ikusezina zitzaidan mundu-ikuskerara eskaini zidatenak.

Gaurko egunean makina bat aldiz entzungo dugu euskara zaindu, babestu eta bultzatu egin behar dugula, hiztunok hizkuntza bat baino gehiago izango dugulako, baina euskarak gu bakarrik gauzkalako mundua adierazgarri egiteko. Eta hala da, izan ere, zoritxarrez, oraindik ere badelako zeregin epikoetatik aldarria jotzeko arrazoi nahikoa.

Edozein modutan, neuri gozamenetik, plazer txikien iturritik edatean gertatzen zait bete-betea euskara, adierazkorra eta aberatsa, nire mundu txikiaren neurri-neurrikoa dela ikusten dudalako.

Berandu nabil

Horrela ibili naiz urte osoan. Berandu, iritsi ezinik. Garai bateko amamek galtzekin egiten zuten bezala jokutzen dugu guk denborarekin: egunari azpia atera nahi izaten diogu, handik edo hemendik luzatu guran, nahiz eta ongi dakigun alferrik ari garela, ez baitu egunak hogeita lau ordu besterik.

Beti berandu. Hainbat arratsaldetan arnasa estaturik heldu naiz haurren eskolako autobusaren geltokira. Egunkari honetako adiskideek maiz erreklamatu behar izan didate emandako hitza, hau da, hilean behin orri-izkina honetatik begiratu eta ikusitakoa zein ikuskizun dudana azaltzeko. Sarritan, nahi baino gehiagotan, berandu ibili naiz. Agindutako epean erantzutea, zernahira delarik ere, nekoso bilakatu da aspaldi honetan.

Berandu gabiltzan ustea iltzaturik daramagu aldean, gainetik kendu ezinik. Bizitzeko manera bihurtu da presa. Mundutik iragateko modu berezia bilakatu da. Gainetik ikusita, gure hiriek inurritegi erraldoiaren antza hartzen dute, eta etenik gabe mugitzen ari diren forma txikiek ehuntzen dute gure paisaia. Batzuetan pentsatzen dut halako barne-indar batek garamatzala handik eta hona, norabide zehatzik gabe, helburua ez baita jadanik norabait iristea, aritze hutsa baizik.

Gure aisialdiari buruzko inkesta kaleratu berri du erakunde publiko batek, eta deigarria da gero adituek “zerbait egiteari” eman dioten garrantzia. Zenbat aldiz joan garen kontzerturen batera, museo batera, antzezlan bat ikustera. Zenbat aldiz zinemara, zenbat herrietako azoketara. Zenbat ordu ematen ditugun irakurtzen, zenbat telebistaren aurrean, zenbat erosketak egiten. Ez du inork galdetu zenbat denbora ematen dugun deus ere egin gabe, helbururik gabe, zeregin zehatzik gabe. Zenbat denbora ematen dugun euriari begira (aukerarik ez da falta izan aspaldion). Zenbat aldiz gordetzen dugun egunean zehar geure buruarekin hitz pare bat egiteko. Zenbat minutu eskaintzen dizkiogun alferkeriari.

Urte berrirako gurariak zerrendatzeko tenorea iritsi da. Hala dagokio abendu zuri honi. Hara neurea: bizitzeko denbora hartu, bizi izandako denbora arinegi joan izanagatik damurik ez izateko.

Oharkabe

Etixerako itzulera errepide berberetik egiten dut egunero. Ni gabe ere, autoak berak egin lezakeela pentsatzen dut askotan. Batzuetan, etxera iristean, ez dut gogoratu ere egiten nondik pasa naizen, bidean ezkerrean dagoen zuhaitza, hainbeste gustatzen zaidana, ikusi gabe ere pasa bainaiz. Hori ona dela esaten du nire adiskide batek, atentzioa gidatzea baino askoz garrantzitsuagoak diren gauzatan jartzen dudala esan nahi duelako, antza. Ni ez nago ados, izan ere, benetan gustatzen zait bide bazterreko zuhaitza.

Bizitzan gauza bera geratzen zaigu. Ikusi ere egin gabe bizi gara, inguruan zer berri dagoen ohartu gabe, gure paisaiaren parte diren pertsona, egoera eta sentimenduei erreparatu gabe.

Bizilagun batek kontatu dit gauzez lo egitea kosta egiten zaiola bere ama hil zenetik. Gure etxetik bi pausotara bizi da, eta egunero egiten dugu topo, baina nik ez nekien ezertxo ere ez. Nola antzemango nion, aspalditxo ingurura begiratzeko ohitura galdu egin badut? Ezin izango nion kontsolamendu merketik harago beste laguntzarik eman, badakit, baina barruak nahastu egin zaizkit, bere minarengatik, jakina, baina baita nire axolagabekeriarengatik ere.

Nola errepidean, hala bizitzan, zentzumen guztiak adi jarri beharko nituzke, baina kontrako ohitura barruraino sartu zaigu. Nahikoa dugu gurearekin, pentsatzen dugu, geure burua justifikatzeko eskuarki. Ama galdu duen bizilagunari berdin gertatzen ote zaion pentsatzen geratu naiz. Nire bizilagunak, neuk bezala, errudun sentitzen ote den galdetuz eta galdetuz ibili naiz azken astean.

Bizitzan, errepidean bezalaxe, egoera erabat aldrebestu arte ez gara ohartzen egindako hutsaz. Istripua izan eta gero berriro gidatzea egokitzen zaizunean, eskuak izerditu egiten zaizkizu, eta oinak txindurritu, urduritasunez. Berdin gertatzen da bizitzarekin: dramarekin aurrez aurre topo egin arte ez zaizkizu zentzumenak berriro pizten, orduan ohartuko zarelako bizitzatik oin-puntatan pasatzeak dakarren kalteaz.

Satorrak

Satorrak agertu dira berriro etxea inguratzen duen berdegunera. Makatza gaztearen ondoan agertu da lehen zuloa. Badakigu zer datorren: urte-modu honetan satorrak ugaltu egiten dira eta horixe da beren zoritxarrerako unerik latzena: laster bizilagunen katuak bana utziko digu atarian, gorpu bizi, bere ehizatze bezien erakusgarri.

Sator-kumeak atsegin ditu katu harrapariak, lurpeko bizimoduaren arauak oraindik ikasteke, ahul dira kumeak eta olgetarako aproposak dira. Katuak pertsegitu egiten ditu, eta jolasteaz nekatuta, hil egiten ditu. Gero banaketa dator, bere balentriaz harro dagoela adieraztea, menderatzen duen inguruan nagusi dela aldarrikatzea.

Adiskide biologoak erakutsi digu animalien portaera ezin dela gizakion ikusmoldeetik epaitu, baina goizetan atea ireki eta hildako satorra ikustean joko maltzurra iruditzen zait.

Boko Haram talde terroristari ihes egin diote 275en bat sator-neskatok. Hedabideek kontatu dutenez, iritsi dira, onik edo, errefuxiatuak artatzeko gune batera. Irudietan ikusi ditut horietako batzuk: emakumeak guztiak, eskolako umeak izan zitezkeenak gehienak. Aske daudela esan zioten horietako bati, nire alaben adinekoa iruditu zitzaidan gorputz argaleko neska negarti bati. Bost hilabetetik gora eman du Boko Haram-eko gizonen eskuetan, eta hitz totalka esan zuenarengatik jakin dugu diren eta ez diren basakeriak egin dizkiotela denbora horretan. Kamerari begiratzen ez dion neskatoak kontatu du bere ama nola hil egin zuten ikusi egin zuela berak, eta berarekin batera eramandako neskatoen beste ama asko ere odoleztutzen ikusi zituela, soldaduek (sic) itxita zeuzkaten etxolen atarian uzten zizkietelako hilotzak goizero, ikus zezaten.

Satorrak lurpean bizi dira, gure etxe inguruko berdegunean egiten dituzten lurpeko galeria estuetan. Ikusezinak dira niretzat, katuak etxe aurrean uzten dizkidan arte.

Adiskide biologoak esan dit ez konparatzeko animalien portaera gizakionarekin. Eta zuzen dago: nekez iritsiko da gure katu basatia gizakion krudelkeria eta basakeriaren maila berdintzera.

Sirena-hotsa

Goizean sirenak iragartzen zuen egunaren hasiera, urtetan eskarmentua hartutako orkestrari jotzeko agindua emanez bezala. Lantegi handi eta zaratatsuez inguratuta bizi izan nintzen txikitan, Donostia inguruko langile-auzo baten. Buzo urdin eta laranja zintzilik zeuden etxe guztietako balkoietan, eta bizitzaren erritmoa lantegiek markatzen zuten. Ilundu orduko jotzen zuen gaueko txandaren sirenak eta lotarako ordua iragartzen zuen; abuztuan hutsik geratzen zen auzoa, lantegiak itxita basamortua bilakatzen baitzen. Huraxe zen orduan niretzat lanaren mundua, sirenek agintzen zuten bizitzeko modu finko eta auresateko moduko hura, eta bakarra zelakoan bizi izan nintzen urte askotan.

Gutariko askok (ez dakit gehienok esatea gehitxo ez ote den) ez dugu sekula era horretako lantergi baten lan egin, ezta egingo ere. Gaur egun, ia sektore guztietan, bestelako lanak egiten ditugu bestelako lan-prozedurak erabiliz, eskuarki toki fisikoaren menpekotasun txikia dutenak. Gutxi izango dira lan-bizitza oso enpresa berean eta lan bertsuak eginez emango dutenak, tokiz edo funtzioz, edo biez, aldatzea baita ohikoena gaur egun.

Mundua aldatu egin da gure inguruan lantegi handiak nagusi zirenetik gaur egunera. Bistakoa da. Ez dakigu oraindik zer jazoko den oraingo krisi sakon honen enbata gaindituko dugunean, baina ikusten hasi gara ez dela lehengo egoeraren antz handikoa izango datorkigun berria. Noraezean gabilta, norantz jo behar dugun ez dakigularik. Lasaitzeko balio ez badu ere, badakigu antzera dabiltzala eraldaketa bortitz horretan murgilduta dauden Mendebaldeko gaienerako herriak ere. Urte batzuetan globalizazioaren leloak erantzunak emango zizkigula uste izan genuen, baina oker geunden. Orain ikusi dugu zer dakarren iparrorratzik gabe nabigatzeak globalizazioaren ur nahasietan, marrazoez inguratuta. Orain ikusi dugu irautea eta sendo errotzea lortu dute proiektuek komunean duten elementu nagusia nortasuna dela, zerbait propioa, berezkoa: identitatea.

Aldaketa hauen guztien argitan, maiz galdetzen diot nire buruari zerk lotzen dituen pertsonak lan-proiektu beraren barruan, hots, zerk egiten gaituen enpresa bateko kide, hilaren bukaerako soldatetik harago. Edo zer herri bateko kide, nahi baduzue. Eta erantzunen bila, askotan aurkitzen dut balore humanista edo gizatar gisa definitzen diren horiek. Talde horren kulturaren parte sentitzea, gure lanaren bitartez lortzen denarekin nola edo hala identifikatzea, komunitate-sentimena, talde-sena. Balore horietan, emandako lan-ordu baten muga

estuetatik kanpora zabaltzen diren beste elementu horietan, aurkitzen dut nik proiektu baten kide sentiarazten nauen pizgarria.

Euskal Herrian, badugu identitatea ukigarri egiten duen elementu indartsu bat, berezkoa, geure-geurea dena, eta bakarrik geurea. Beste hizkuntza asko jakingo ditugu, eta erabiliko ditugu lanaren munduan, baina bakarrik geurea den euskarak nortasun propioa eratzen laguntzen digu. Ez dakigu noraino iritsiko garen, baina abiapuntuetako bat bederen, sendoa da. Euskaraz joko al du lozorrotik esnatuko gaituen sirena-hotsak?

Zerrendak

Europako mapa politiko itsua ekarri du alabak, etxean ikasteko. Herrialdeek zenbaki bana dakarte, eta atzealdean bi zerrenda datoz: ezkerrean herrialdea jarri behar du alabak, eta eskuman hiriburua.

Uste baino gutxiago aldatu dira gauza batzuk, eta oraingo honetan behintzat, poztu egin nau, ospe txarrekoak badira ere, zerrenda zalea bainaiz.

Idatziz ikasten zen garaikoa naiz, makina bat eskema eta laburpen osatutakoa. Giza-gorputzari eusten dioten hezur eta muskuluak eskuz marraztutako eskeleto zatar baten jarrita ikasi nituen, eta berdin lurraldea zeharkatzen duten ibaiak eta mendi-kateak ere, beti ere gutxi gora-beherakoak. Alabekin batera Europari neurria hartzera jarri naizenean, sistemak funtzionatu egin zuela ohartu naiz, herri eta hiriburuak orduan ikasita bezala, buru-kaskoan sartzeko erabiltzen genuen doinu kantari horretaz, gogoratzen ditudalako. (Gaur egun badira orduan mapetan existitzen ez ziren herrialdeak, baina hori beste upeleko sagardoa da).

Galduta nagoenean zerrendak egiten ditut. Aukerak alde baten eta arriskuak bestean; irabazteko dudana ezkerrean, eta galduko dudana eskuman. Eta horrela, banan banan, mapa propioa eratzen joaten da, neurea, eta zerrenda osatzeko ariketa bera ibilian jarraitzeko modu argi-egile bihurtzen da.

Zerrendaturik dauzkat bizitzan zehar galdu ditudan aukerak, askotarikoak eta ugariak izan direnak. Hor daude, esate baterako, txikitatik bizigarri zitzaizkidan arren, halako baten ahaztu nituen ametsak. Orduko indarra betirako galdu dudala sentitzen dudanean, zerrenda ateratzen dut, bata bestearen atzean idatzita ikusi ditudanean konturatzen naizelako bizitzako hutsen katalogo horretan datzala, gorpu bizi, lortu ditudan arrakasta txikien lehengaia.

Ez dakit oso ongi zergatik jokatzen dudan horrela, eskolan erakutsi zidatelako edo bizitzan zehar bidaiatzeko mapa hoberik ez dudalako aurkitu. Kontua da alabek Europa deskubritzeko erabiltzen duten teknika berberaz baliatzen naizela ni nire buruaren barne-bideetan noraezean ez ibiltzeko.